

«Laster txipa jarriko digute»

Bada behe laino bat gutako bakoitzaren barneetan, norbere bazterrak ikusten uzten ez duena.

Eta txirrindulariak, heste bidean gora doanean, hortzak elkar urratu beharrean, aldatza etzango den esperantza bakarra ere galduta, ez du lanbro urratuarekin gailurrik egin nahi.

Bere bazterren atzetik dabil, ezinezko mugarrien bila.

AMETS ARZALLUS

Bizikletari *“machine a rêves”* deitu izan diote Frantzian, amets egiteko makina, errealitatetik eskapatzen laguntzen duelako, norbere baitara biltzen. Bizikletak hegoak omen ditu.

Hala da. Niri errealitatetik ihes egiten laguntzen dit, eta entrenatzen noanean neure gauzak pentsatzeko bidea ematen dit. Tourretik itzuli nintzenean, pare bat egunean bizikleta ukitu gabe egon nintzen, denak hoska, denak inguruan, itota sentitzen nintzen, eta mundu hartatik askatzeko bizikleta hartu nuen, arnasa eman zidan, eta asko disfrutatu nuen. Handia dirudi hala esanda, baina bizikletak askatasuna ematen dit.

Joseba Beloki haurra zela, festetan, tonbolara joan zen amarekin. Eta tonbolan, zer eroriko, eta bizikleta tokatu zitzaion. Bere lehen bizikleta.

Niri tonbolan gauza gutxi tokatu zaizkit, ez dudalako jokatzeko ohiturarik, ez tonbolan eta ez loterian. Baina bizikleta utzi egin zidan Markinako bizikleta eskolak. Iruzubietako mutil batek ba omen zuen zahar bat, eta txirrindulari eskolak hartu zuen, konpondu, eta niri utzi. GAC zahar bat zen, plato bakarra eta hiru pinoi, berdea, eta helduleku arrosa. Gustura ibili nintzen harekin. Aurretik beste bizikleta txikitxo bat ere izan nuen, eta harekin ogiaren bila, esnetara eta enkarguak egitera bidaltzen ninduen amak, otzara bat aurrean jarrita, eta gustura ni harekin Etxebarritik Markinara.

Alejandro Valverderen aita Juan kamioilaria da. Alejandrok kamioiak kargatzen omen zituen aitarekin mutikotan, edo *karretilla* hartuta ibiltzen zen lanean. Eta orduan ulertu zuen kamioilaria ez izatekotan, ziklista izan behar zuela.

Normalean txirrindularia etxe zailetik ateratzen da, bizitza aurrera ateratzen kostatako etxetik. Badira etxe onekoak ere, George Hin-

capie adibidez, oso familia aberatsekoa dela entzuna nago, eta txirrindulari ona atera da, baina gehiago dira alderantzizko kasuak. Kiro-la bera ere sakrifizio asko eskatzen duena da eta oso garbi behar duzu hori egin nahi duzula. Gauza asko alde batera laga behar dira zerbait lortzekotan, eta hori errazago egiten da benetan txikitatik ikusi duzunean gauza bakoitza zenbat kosta den, eta zure amak zenbat sufritu duen bizitza aurrera ateratzeko, dena ez dela jiji jaja eta hain erraza. Hori badakizunean sufritzeko gaitasun gehiago izaten duzula uste dut, eta horrek bizikletan asko esan nahi du.

Zenbat kostatako etxea zen zuena?

Gu errentan bizi ginen Etxebarrin, eta ez gara inoiz ibili diruz sobratuta. Aita eta ama, hemen jendeak dirua egin zuen urteetan, bata Venezuelan eta bestea Ekuadorren ibili ziren misioetan jendea laguntzen, eta hona ezer gabe itzuli ziren, ez etxe eta ez diru. Beti bizi izan gara lau nebarreba errentan, nahiko justu dena, eta zegoena bata bestearekin konpartitzen genuen, bata bes-

Nortasun agiria

1982ko azaroaren 10ean jaio zen Markinan (Bizkaia). Markinako eskola publikoan hasi zen ikasten, eta Lea Artibai Teknika ikastetxean bigarren maila egin eta gero Gasteizen lizentziatu zen irakasle-ikasketetan. Azken ikasturteko lau hilabete Urbinon egin zituen, Italian, Erasmusekin joanda. Eta orain ere psiko-pedagogian dago matrikulatuta. Bizikletan Markinako txirrindulari elkartearen hasi zen, eta Ondarroako eta Lekeitioko taldeko mutil denak batera ibili ziren, txandaka, hiru herrietako batek ardura hartuz. Afizionatueta Lekeitalden egin zuen debuta eta gero Olarrara pasa zen, Orbea Olarra izango zena geroago. 2003an istripu baten ondorioz bidean gelditzekotan izan bazen ere, Debabarrenan egin zuen beste urtebete, eta gero Barloworlden eman zuen profesionaletara jauzia. Orain bigarren denboraldiari ekin berri dio Euskaltelen, eta azkeneko Tourrean txirrindularirik lehiakorrenaren saria jaso zuen Pariseko podiumean.

Amets Txurruka

• PERTSONAIA •





teari pasa, eta baloratu egiten zen zegoena. Agian ez genituen lagun batzuk zituzten gauzak edukiko, baina hiru neba-arrebaz olgetan egotea egun guztian beste askok ez zuten edukiko, eta guk bai. Edo etxe alboan ortutxoa, eta han tomateak landatu, eta neba-arreba artean ibiltzen ginen jolasean “nire tomateak zureak baino gehiago eman du” eta holako kontuetan. Betidanik eduki dugu kultura hori eta nik uste gerora mesede handia egin didala. Gainera gure etxea txikitxo zen, baina ni gustura bizi nintzen. Gero jabeak erreforma batzuk egin nahi zituela, bere bilobei utzi nahi ziela, eta utzi egin behar izan genuen. Markinara aldatu ginen aititarena zen pisu batera.

Soldaduskara joateko altuera jakin bat behar izaten zen garai batean. Gizon bati pare bat zentimetro sobratzen omen zitzaizkion, eta jakina, nola edo hala soldaduskatik libratu nahi. Altuera

Zornotzako showa

“Zornotzako sari nagusian, afizionatuetan, zazpi lagun gindoazen helmugara bidean bigarren postuaren bila. Azkeneko hirurehun eta berrogeita hamar metro faltako ziren eta ni beste batekin kateatu, gurpileko zazpi edo zortzi erradio apurtu, eta gurpila blokeatuta airean atera nintzen. Jausi ez nintzen egin, hanken gainean gelditu nintzen, baina gurpilak jada ez zuen itzulirik ematen. Hartu nuen bizikleta lepora eta korrika hasi nintzen. Han nindoan arin-arinka zazpigarren egitera. Baina helmugarako hogeita hamar edo berrogei metro falta zirela pelotoia etorri zen eta haizeak arbola bezala pasa ninduen. Azkenean ez nuen egin ez zazpigarren ez ezer, baina jende dena txaloka eta kristoren *showa*. Irabazlea bezain famatua izan nintzen”.

neuritu behar zen egunean Santanderrerraino joan eta etorri egin omen zen bizikletan, eta abaildurak behera ekarrita, zentimetro pareta galdu eta neurria eman gabe etxean gelditu omen zen.

Nik Santanderrera makina bat joan-etorri egin-go nuen honezkero denak kontatuta! Baina ez dut uste horrek altuera behera ekarriko zidanik, beti izan naiz ni txikia. Baina egia da nik daukadan gorputza bizikletak egindakoa dela. Lehen txikia eta potoloa nintzen, bola bat, eta bizikletan ibiltzearen ondorioz, argaldu eta argaldu, eta hala gelditu naiz. Pentsa, kadeteetan, hamalau-hamabost urterekin, denboraldian eduki nuen pisurik baxuena ere orain daukadana baino bost bat kilo gehiago izan zen. “*Joder*, bai argal amaitu dudala” pentsatzen nuen orduan, eta hamar urte beranduago bost kilo gutxiago ditut.

1903an sortu zen Frantziako Tourra, Henry Desgrangesek sortu zuen, bere *L'Auto* egunkariari publizitatea egin eta ale gehiago saltzeko. Gauzak ez dira asko aldatu.

Guk ere, nahi edo ez, telefono batzuk gehiago saltzearen pedaleatzen dugu. Saltzen duguna ez da karrera bat irabaztea, edo ez dakit zer, guk gure irudia saltzen dugu, eta zenbat eta gehiago agertu gure elastikoa, konpainiaren izena gehiago ikusten dute, eta enpresak gehiago saltzen du. Niri makina bat bider gertatu zait, zer den jakin ere egin gabe, produktu bat erostera joan, kafe makina bat adibidez, eta Saeco Delonghi, horiek ezagutzea. Zergatik ezagutzen ditut? Txirrindulari taldeak izan direlako. Azkenean guk saltzen duguna hori da, gure itxura eta maillotean daramagun izena.



Marcel Queheille Zalgizeko *grimpeur*ak etapa irabazi zuen 1959ko Tourrean, Baionan. Baina pelotioan ez zen hain maitatua, goizero eskapatu egiten zelako, eta beste txirrindulariek mania hartu zioten, ez zion uzten tropelari lasai joaten.

Hori sarri gertatzen da, nik ere eskapatuta ibilitakoan “*apestoso*” eta halakoak entzun izan ditut erdi brometan. Eta aurtengo Tourrean, gogoratzen naiz, etapa batean beste txirrindulari batek hurbildu eta nola esan zidan: “Baina zer egin dizugu guk txarrik hemen gurekin joan nahi ez izateko?” Kar, kar, kar. Tira, bromak utzita, hori nik uste bakoitzaren nortasunaren arabera dela. Indarra daukadan momentuan ahalegina behintzat beti egiten dut aurrera joateko, eta ez da inorekin gaizki konpontzen naizelako, nik uste kirolari orok behar duela anbizio pixka bat, daukanarekin konforme gelditu ordez beti ahalegindu behar du gehiagoren bila. Badira txirrindulariak “hemen ondo banoa zertarako ahaleginduko naiz aurrera joaten?” esango dutenak, eta nik pentsaera hori aldatu egingo nuke. Neurea behintzat ahal denean proba egitea da. Batzuetan damutu izan naiz, eta pentsatu: “Nora nindoan ni aurrera kristoren marka egitera, gero harrapatu eta eurekin ere ezin dut eta joan!” Daukazu apurra ere galdu, alegia. Baina arriskatu beti egin behar da, ondo irteten denean ondo, eta bestetan gaizki baina aurrera.

Merckxek dena lehiatzen zuen. Etapa batean sindikalista batzuek aprobeztatu zuten lasterketaren pasaera beren protestarako, eta Merckxek haien pankarta ikusi bidean alde alde eta esprintari ekin zion. Lehena pasa zen han.

Ni lehiakorra banaiz, baina ez den-dena nahi duena. Ahalegintzen naiz neure maximoa ematen eta neuretzako onena dena topatzen, baina ez den-dena hartzen, eta askotan utzi dut disputatu gabe mendi bat, edo tarteko helmuga bat. Tourrean lehiakorrenaren saria eman zidaten, baina nik uste lehiakorra baino gehiago saiaturia naizela. Aukera baldin badago, jakina, denoi egiten digu ilusioa dena delakoa irabazteak, eta ez dut besterik gabe utziko, baina askotan uzten diezu beste txirrindulariei ere, berak mesede egin zizulako lehenago, edo auskalo zergatik.

Bahamontes igotzaile handia zen, baina jaisten beldurak akabatzen joaten zen. Orduan mendia igo eta besteen zain egoten zen melokotoiak janez, besteekin batera jaisteko.

Ni ere asko beldurtzen nau jaitsierak. Istripu hura eta gero ez naiz lehen bezain azkar jaisten, eta urteen poderioz edo ez dakit zahartu egin naizen edo zer demontre, baina gero eta errespetu gehiago diot arriskuari. Baina jaistearena bada bestalde nola igotzen zarenaren arabera ere. Oroitzen naiz kadetetan eta jubenetan, potoloa nintzen eta gorantz ezin izaten nuenez segitu beherantz errekupeztzen nuen. “Hil edo bizi hauek harrapatu egin behar ditut zelan edo halan” pentsatzen nuen, esprintean ere azkarragoa nintzen eta banekien haiek hiltzen banintzen aukerak izango nituela. Beraz, igotzen galtzen nuen guztia jaistean errekupeztzen nuen, eta orain igo nahiko ondo egiten naizenez jaitsierak beldur gehiago ematen dit, edo agian pentsatzen dut, “tira, irabazi, ez dut irabaziko, baina



ARGIA

ez noa hemen osasuna galtzera”; bizitza arriskuan ere askotan ikusi baitut eta horrek zer pentsatua ematen du.

Pedro Horrillok etapa baten amaieran poema bat idatzi zion Chava Jimenez zenari. Tropelean egongo da makina bat istorio txiki.

Bai badaude. Adibidez, Marzio Bruseghinek ardoa egin du aurten. Bera beti baserri zalea izan da, animaliak eta landareak gustuko ditu, hala mahatsa landatu zuen eta aurten ardoa atera du. Eta Amets izena jarri dio. Bai, Amets. Eskatu nion kaxa bat, eta esan zidan aurten botilan sartzekoa zela eta bidaliko zidala.

1924an Pelissier anaiak faborito garbiak ziren Tourrean. Baina goiz batean etapan ez abiatzea erabaki zuten, Henry Pelissieri, bietan onenari, ez ziotelako utzi bi elastikorekin abiatzen. Birekin abiatzen baldin bazen helmugara ere hala iritsi behar zuela, bidean ezin zuela bat bota, esaten zuen araudiak, nahiz eta bero handia egin. Kexu, “ez gara txakurrak” esan zion zuzendariari, eta ostatura alde egin zuen. Rasmussenekin oroitu naiz, bi elastiko zeramatzan goizean, bat horia eta bat mendikoa, baina ez zioten utzi abiatzen.

Nik egun hartako oroitzapen txarra dut. Bezeratik Rabobankekoeen hotel berean geunden,

eta ez nekien nik han zer gertatzen zen baina poliziak ikusten ziren etengabe hara eta hona. Bazirudien nik ez dakit zein delitu egin zuela bat edo batek, hilketaren bat gertatu zela. Poliziak beti sartu-irtenean. Eta azkenean zer egin du ba mutil horrek? Oraindik ere frogatu den gauza bakarra da berak zioen lekuan egon ordez beste leku batean egon zela. Horregatik inor hola tratatzea lotsagarria begitantzen zait. Eta hurrengo eguneko irteeran frantziarrek zein tratatu eman zioten ere benetan tristeza izan zen. Azken batean Rasmussen pertsona bat da, eta holako tratua ez zaio inori eman behar, ez gauzak zuzen egin dituenari, ez gauzak oker egin dituenari. Hala ezin dira erabili pertsonak, gu ere ez gara txakurrak.

Marco Pantanik, hil aurretik, bera zegoen hoteleko liburuxkan bederatzi orri utzi zituen idatziak. Eta tartean bi esaldi: “Inor ez da ni ulertzera iritsi, ezta nire familia ere. Bakarrik gelditu naiz”. Mayoz oroitu naiz, eta beste hainbestez...

Asko, jende ezagun asko. Fama hori daukatean hainbeste lagun, denak gertuan, eta gero zenbat bakardade momentu. Eta momentu txarretan lehen zure inguruan zeuden denak ez dira gerturatzen. Beti-betiko jendea bakarrik gelditzen da, benetan maite zaituztenak, eta

hori baloratu behar da, eta horiek mantendu, azken batean horiei esker zara zu. Bizikletan ibiltzeak sufritzen erakusten dizu, eta independenteago izaten, zeure arazoak zeuk bakarrik aurrera ateratzen, eta bakardadeari beldur hori galtzen, baina beti daude momentu latz batzuk norbaiten beharrean aurkitzen zarenak. Eta pentsa jende hau, punta-puntan egon den jendea, azkenean Zaramaren kantauak esaten zuena, zenbat eta gorago igo gero kolpea ere handiagoa da. Beraz nahiz eta jendeak altxatzen zaituen horra, eta arrakastaren erdian zauden, hankak lurrean eduki behar dituzu, beste la erori egingo zara, eta momentu txarrak are gogorragoak izango dira. Badakit Mayoren kasuan berekin entrenatzen zuen jendea ahalegina egiten ari dela laguntzen, baina gogorra izan behar du oso.

Banpiroek esnatzen zaituzte, kazetariak gaizki esaka ari dira, eta zuk ere hoteleko liburuxka bat baino ez duzu idazteko.

Askotan pentsatu izan dut nik ere: “Ni zein mundutan nago sartua? Zer egiten dut nik hemen? Ez naute ulertzen. Eta zer ari zarete esaten? Ni egiten ari naizen ahalegin dena eta sakrifizio guztia, eta gero hau? Hauek denek justu alderantzizkoa ulertzen dute, ez da justua, zer egiten dut nik hemen?”. Baina azkenean haxe da gustatzen zaidana eta momentu batzuetan pentsamendu latz horiek buruan ibiliagatik biharamunean egun ederra ateratzen du eta gozatu egiten dut bizikletan.

Georges Perec idazle frantsesak gupil bat irudikatu zuen, eta pentsatu zuen gupilak mugimenduaren pentsamendu obsesiboa sortzen duela, kontzientzia bikoitza: zirkuluaren kontzientzia, eta translazioaren kontzientzia. Zirkuluarena da norbere baitara biltzea, introspektzioa, eta translazioarena, progresioa, amesgaizto zurrumbilotsuetatik alde egiteko modua. Txirrindularitza, zirkulua edo translazioa.

Momentu honetan aurrera gutxi egiten duela esango nizuke, betiko sistema horretan bueltak gabiltza eta ikusten dugu ahultzen doala, babesleak alde egiten ari dira, eta ez dakit nondik, baina irtenbideren bat topatu behar ko litzateke denen aldetik, denok dakigu bide honetatik ez goazela inora. Pentsa, oraingo araudi berriarekin, nik UCIRi hurrengo hiru hilabeteetako plangintza zehatza bidali behar diot. Zehaztu behar dut hiru hilabeteen egunero non egongo naizen, eta berak etortzen badira nik esandako lekura nik ordubeteren barruan han azaldu behar dut. Hemendik hiru hilabetera halako egunetan etxean egongo naizela esaten badut eta etxera etortzen badira eta ni ez baldin banago, telefonoz hots egingo didate, eta erantzuten ez badut, edo erantzun arren ordubetera iristen ez banaiz,

Sufritzeko gaitasuna

“Gehiago edo gutxiago, baina denek daukagu sufritzeko gaitasuna. Ikasi egiten da sufrimendu hori errazago eramaten, eta batzuen aurpegian gehiago edo gutxiago azaleratzen da, baina sufritu denek egiten dugu. Pokerreko partida bat izango bailitzan sentitzen duzuna erakutsi beharrean beste aurpegi bat jartzen eta aurkaria engainatzen asmatu behar da. Hala gertatu zitzaidan Ruben Perezekin Plateau de Beilleko etapan eskapatuta joan nintzenean. Toni Colom eta beste denak gu baino okerrago ei zihoazen, eta gu inozente-inozente, ondo gindoazela eta, aurrera eta aurrera. Azkenean haiek denek aurpegi txarra bai baina hankak onak, eta denak aurrera, eta gure hankak alto esan zuten. Beraz aurkaria irakurri, aurpegian baino gehiago pedaleoan, eta aurkaria engainatu egin behar da”.

AZKEN HITZA

Tourra

“Tourra dena da. Kalbario bateko egunak ditu, eta beste egun batzuk zoragarriak. Han bizi den guztia, ez dakit zergatik, baina beste era batean bizi da. Lasterketa bera, egia esan, astakeria da, hiru aste luze egurrean egunero. Heltzen dira egunak nekearen nekez lorik ere egin ezin duzunak. Lo egiteko baino nekatuago zaude. Baina azkenean horretarako prestatzen gara eta prestatu duzun hori ondo ateratzen zaizunean satisfazio itzela sentitzen da”.

abisu bat jasoko dut. Hirugarren abisua dopin positibo baten moduan kontatuko didate, eta nik ez daukat dopinarekin zerikusirik baina nire kirol bizitza hor amaituko da. Beraz, hiru hilabetezko plangintza zehatza emateaz gain, telefono mugikorra ere beti aldean eduki behar dugu, eta beti piztuta, eta beti erantzuteko moduan. Ezin gara UCIRi abisatu gabe mendira joan, edo zinemara, edo amarenera joan eta mugikorra bateriarik gabe gelditu. Nik hori kartzela batean egotea bestekoa ikusten dut, eta martxa honetan laster txipa ipiniko digute.

Eta txirrindulariek grebak egiten zituzten garai batean, edo idatziak atera, 1949ko hura bezala, kazetariak frantziarren eta italiarren aurka ari zirenean: “... Gu denak elkartasunak biltzen gaitu, txirrindulari guztiak solidarioak gara, sailkapenak edo izaerak inor bereizi gabe, denak lehia honetan elkarren lagun Parisera iritsi nahi dugu”.

Adibide polita da, orain oso elkartasun gutxi dago txirrindularien artean, eta horixe da txirrindularitzak daukan akatsik handiena nire ustez. Bakoitzak bere interesei begiratzen die, eta esaten du, “ni ez nago horrekin ados, baina nik neure burua salbatzen badut *allá kuídaos!*”. Eta lehengo akatsen ordaina ere bada, “batzekoak ginen, eta beti egon zen bat, edo herrialde bat, berea egin eta besteak errespetatu ez zituena, beraz nik zergatik egingo dut orain alderantzizkoa?”. Lehengo akatsen ondorioz are akats gehiago egiten ari gara. Baina tira, txirrindularitza bakarrik ez, bizitzan ere beti egon dira eskirolak, eta beti egongo da norbait greba hasten denean, “*joder*, nik familia daukat, aurrera atera behar dut, eta joan egin behar dut lanera” esango duena, bizitza holakoa da. Eta txirrindularitza ez da bizitzaren ispilua baino. ■